

Txartasunaren banaltasuna

Eichmann Jerusalem

Jatorrizko izenburua: *Eichmann in Jerusalem, A report on the Banality of Evil*

Egilea: Hannah Arendt

Itzultzailea: Koro Navarro

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Klasikoak

KARLOS DEL OLMO

Ba ote txartasuna, gaizkia bera, hutsal gertatu edo banala izan? Itaun horri erantzun gura izan zion Hannah Arendt-ek 1961. urtean Jerusalemen Eichmann nazinari (nazi ohia esaterik ez dagoenez gero) eginiko juizioaren kronika luzea idazterakoan. Zehaztu beharra zuen nor izan zen, benetan Eichmann, zeintzuk haren ekintzak, eta, azkenik, munta txikiagokoa ez zen beste auzi bat: epaitegiak Justiziaren eskakizun zorrotzak betetzerik lortu zuen. Bestela esanda, kronikagilearen hipotesia betetzen ote zen egiaztatu beharra, hau da, txartasuna banal bihurtzen dela norberaren eta inoren eginak bereizteko gauza ez denean.

Hiru ditugu Hannahek landu alorrak: gizakiaren kontzientzia moralaren ezaugarriak eta norbanakoarenganako ondorioak (jakina, Eichmannengan, lehenik, gainerako nazi guztiengan bigarrenik eta, azkenez, gizaki denengan); Holokaustoaren ezaugarri soziologikoak, eta, azkenean, gorabehera nabarmenak izan zituenez gero, juduen justizi administrazioaren —eta, ondorioz, ezein justizi administrazioen— jokabidea.

Jakina, auziperatze entzutetsu baten gaineko txostena da, oinarritzko lehengai moduan Jerusalemara bildutako kazetariak jasotako auzi izapideen transkripzioa dela bide. Argitu beharreko auzia behar eskergetan eskergena: zelakoak izan ziren Otto Adolf Eichmann gerra kriminalaren aurkako juizioko inguruabarrak, hamabost delitu leporatzen zizkietenetik, eta ez edozelakoak: bakearen aurkako krimenak, herri juduaren kontrako krimenak eta gizadiaren aurkako krimenak. Benetan, gizadi osoaren gainekoengatik epaitu bide zuten, juduek ez zutelako —itxuraz— bereizketa etnikorik egin gura izan. Jakina, azkenean, gauza ez ziren hain errazak izan, gizaki bakarria epaitu zuten arren, hura ez zelako izan deportatuentzako trenen erantzule bakarria, bateko, eta, besteko, erregimen naziaz harantzago, antisemitismo sekularra jesarri gura izan zutelako akusatuaren jarlekuan. Hala, gauza guztiak abstraktuago bihurtu ziren: gizaki bakarraren egintzetan krimen izugarriak antolatu zituen sistema oso bat auzipetuta utzi zuten.

Koro Navarrok euskaraturiko liburu honetako lehen zatian, juizioaren beraren inguruak (partaideen jarrerak, hizkuntz eta itzulpen arazoak, irregulartasun formalak...) agertzen dira. Juizioari nazioartekotasun aire bat eman nahi izan arren, epaile eta ikusle guztiak juduak ziren. Bestalde, zenbaitetan magistratuek lizentzia eman zioten salatzaile publikoari prentsarekin harremanetan egoteko, eta telebista saioek etengabe eteten zituzten epai saioak (publizitatea eta guzti).

Eichmann ez zen kristaua eta, beraz, zinpean deklaratzeari uko egin zion. Salaketa formulatuta zegoen zentzuaren aldetik errugabea zela aldarrikatu zuen, eta berak ez zuela ez zuzenean inolako judurik edo pertsonarik hil, ezta hiltzeko agindu ere. Dena dela, agindu baliote, aita bera bere eskuekin hilko zuela azaldu zuen. Argiro erakutsi zuen auzian zein egoeratan bizi ziren naziak: ez zekiten zein ziren gertatzen ari zenaren

ondorioak eta, bestalde, ezinezko gertatzen zitzaizen heltzen zitzaizkien aginduak ez betetzea (beti egoten zelako norbera baino gorago zegoen baten bat). Partiduak borondatea zurrupatu balie legez jokatzeko zuten. Eichmannek oso ondo ezagutzen ei zituen juduak (hebreera eta yiddisha ikasi eta menperatu zituen). Dena dela, juduak laguntza eske joaten zitzaizkionean, goikoen aginduak jartzen zituen aitzakiazat... ezer ez egitea zurrizteko.

Kronikan aurrera egin ahala, zalantza handi bat sortzen zaigu: nor dugu, bene-benetan, aurrez aurre: fede txarrez jokatzeko duen gezurti lerdo bat ala errealitateari aurre ezin eginik dagoen kriminala, krimena errealitatearen osagai bihurtu zaionez gero?

Egilea judua izanik, haren kideentzat deseroso gertatzen ziren galderak egin zituen; eskandalua ere sortu zuen, bigarren argitalpenean adierazi zuelako Otto Adolf Eichmann ez zela ez gaiztoa ez ergela, irreflexio hutsak —ezen ez lerdotasunak— bihurtu zuela haren garaiko kriminalik handiena; horra hor liburuaren bigarren izenburuaren azalpena: txartasunaren banaltasunaren gaineko ikerlana. Baina Arendtek dioenez, Eichmannek eskura zituen baliabide guztiak erabili zituen aginduen, delituen ondorioak larriagotzeko, haren bizitza benetako arriskuan ez bazegoen ere aginduak behar bezala ez betetzearen ondorioz (akusatuaren abokatuak hala esan arren, alegia, urkatzeko arriskua izan zuela).

Gogor salatzen du liburuan egileak, berbera judua izan arren, nazia epaitzeko erabilitako prozedura: argentinar herritarra zen Eichmann hura bahitu eta epaitu arte Jerusalem ohe bati lotuta izan zutenean: zelan epaitu zezaketen epaile juduek argentinar bat? Zein nazioarteko eskubideren arabera? Azken buruan, gainera, mendeka ote zitekeen milioika giza seme-alabaren erailketa Justiziaren bermeak hautsita gizaki baten bizkar gainera erru osoa boteaz? Aldez edo moldez, idazleak agerian jartzen du giza kontzientziaren krisialdia, bai naziena, bai juduena, hauek ez zirelako aurka egin milaka lagunek osaturiko ilarak zaintzen zituzten zaintzaile nazi bakanei. Matxinatu ez zirelako. Totalitarismoaren armarik bortitzena horixe delako: jendea mundua zalantzan jartzeko ahalmena kentzea, erregimen totalitarioaren klaxa ezba egiteko gaitasunaz gabetzea.

Nolanahi ere den, gizarte gatazkaren batean murgilduta edo hura epaitu behar duen edozein gizartetarako itaun eta gertaera unibertsalak dira, Euskal Herrira ere, jakina, erraz erakartzekoak.

Testu hau, edozelan ere, mugari bihurtu da, bai kritikoentzat, bai Arendtek erakutsitako bidetik holokaustoaren ondorioetako batzuk hainbat itxura ezberdin hartuta, gizarte mota askotan, egun ere etengabe berretzen direla defendatzen dituztenentzat. Ingurura begiratu besterik ez dugu.

Kororen itzul modua ondo baino hobeto egokitzen zaio kronika moduko estilo honi, eta testuak erraz bai erraz korritzen du; dena dela, zenbait pasarte beste orrazketaren baten beharrean daudela dirudi, beharbada bilduma honetan duela gutxi arte zuzentzaileak izan diren arren, honako honetan halakorik erabili ez dutelako? Penagarri gertatuko litzateke hainbat gauzatan eredu garri gertatzen den bilduma honetan zuzentzailearen eginkizuna ez aipatua edo alde batera utzia izana.

Eichmann oso duin joan zen urkamendira, erlijioaren laguntzarik gabe eta botila erdia ardo beltz edanda. Herio ondoko bizitzan ez zuela sinesten eta kristaua ez zela aldarrikatu, biba batzuk bota eta han hil zen "hitza eta pentsamendua motz uzten dituen *gaizkiaren hutsaltasun* beldurgarriaren irakasbidea".

